



14/2026 Irizpena, maiatzaren 4koa: Ofizioz berrikustea Elgorriagako (Nafarroa) 1. poligonoko 824. lurzatian Ezkurra ibaiaren pasealekua luzatzeko hiri-jarduketako plan bereziaren behin betiko onespena.

Eskatzailea: Elgorriagako Udala

Txostengilea: Ana Clara Villanueva Latorre

Interesa: Judizialki aurkaratutako xedapen orokor bat ofizioz berrikustea: bidezkoa da. Hiri-jarduketarako plan bereziaren izaera, konfigurazioa eta helburua. Hiri-antolamendurako tresnek ingurumen-ebaluazio estrategikoaren beharra dute. Ofizioz berrikustearen mugak: ez dira bidezkoak.

Irizpen honen xedea da hiri-jarduketarako plan berezi baten behin betiko onespena ofizioz berrikusteko prozedura. Plan berezi horren bidez Ezkurra ibaiaren parkea luzatu nahi da, Elgorriagako (Nafarroa) 1. poligonoko 824. lurzatian.

Hiri-jarduketarako plan berezi horren helburua zen Ezkurra ibaiaren parkea luzatzeko lurra, hots, 1. poligonoko 824 lurzatia, bide sistema orokor gisa definitzea. Lurzati hori Udalarena da, gaur egun, eta Elgorriagako bainuetxea dago hor.

(...) merkataritza-sozietateak, bainuetxea ustiatzeko enpresa adjudikazioduna denez, alegazioak egin zituen, bai hiri-jarduketarako plan bereziaren hasierako onespenaren aurka, bai eta - behin betiko onespenaren aurka. Elgorriagako Udalak ezetsi egin zituen alegazio horiek. Aipatutako merkataritza-sozietate horrek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuen hiri-jarduketarako plan berezia behin betikoz onesteko erabakiaren aurka. Errekurtso horretan, merkataritza-sozietateak hiri-jarduketarako plan bereziaren betearazpena eteteko eskatu zuen, kautelazko neurri gisa, eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak neurri hori onetsi zuen, autoz. Ondoren, Elgorriagako Udalak prozedura bat abiatu zuen, ofizioz berrikusteko, zuzenbidean erabat deusez izateagatik, «Ezkurra ibaiaren parkea luzatzea, Elgorriagako (Nafarroa) 1. poligonoko 824 lurzatian» hiri-jarduketarako plan berezia [Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 47.2 artikulua]. Zuzenbidean erabat deusez deklaratzeko eman diren arrazoiak dira, batetik, ingurumen-ebaluazio estrategikorik ez dela egin hiri-jarduketarako plan berezia prestatzeko prozeduran eta, bestetik, plan berezi horrek ezartzen dituen zehaztapen batzuk goragoko maila bateko planeamendu-tresna bati dagozkiola, hirigintzako legediak ezartzen duenaren arabera, eta ez dela egokia.

Kontseiluak aztertu du, lehenik, ea aukerarik badagoen bide judizialek aurkaratutako xedapen orokor bat ofizioz berrikusteko. Izan ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 106.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, bide administratiboa agortu duten egintzak berrikus daitezke, bestelako kontsideraziorik gabe. Beraz, judizialki aurkaratu den egintza bat baldin bada ere, administrazioak ofizioz berrikus dezake, eta ondorio hori bera aplikatu daiteke xedapen orokorrak berrikusteari dagokionez (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 106.2 artikulua).

Ofizioz berrikustea bidezkoa den edo ez irizteko, Elgorriagako Udalak alegazioak ezeztatzeko planteatu dituen bi arrazoiak aztertu dira: batetik, hiri-jarduketarako plan bereziak ukitutako determinazioen izaera eta xedea, eta, bestetik, tresna horrek aipatu determinazioak arautzeko duen gaitasuna. Horretarako, aplikatzekoak diren arauak aztertu ditu, hots: uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testuategina onesten duena, eta martxoaren 26ko 48/2012 Foru Agindua, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitzako kontseilariak emana, Elgorriagako Udal Plan Orokorra onesten duena. Kontseiluak ondorioztatu du ezen aurkaratutako hiri-jarduketarako plan bereziaren barruan badirela determinazio batzuk haren xedetik harago doazenak, eta antolamendu bat ezartzen duela eremu batean baina halako antolamendurik ez duela ezarri hierarkian gorago dagoen beste planeamendu batek; izan ere, sistema orokor bat sortu nahi du, eta hori udal-plan orokorraren bidez egin behar da. Horrenbestez, zuzenbidean erabat deuseza den egintza baten aurrean gaude, zeina arautua baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 47.2 artikuluan, hiri-jarduketarako plan berezi batek ezin baititzaiteke modu baliodunean bete legez esleituak dituen funtzioak ez direnak, eta haren legezkotasun eremutik kanpo dago udal plan orokorraren berezko zehaztapenak ezartzeko aukera.

Udalak aipatutako bigarren deuseztasun-arrazoiari dagokionez (ingurumen-ebaluazio estrategikorik eza), aplikatzekoak diren arauak aztertuta, hots, Ingurumen Ebaluazioari buruzko Legea eta Ingurumen Eragina duten Jarduerak arautzen dituen Foru Legea, ondorioztatu dugu ezen hiri-jarduketarako plan berezia onartu aurretik egin behar dela ingurumen arloko esku-hartzea, eta ez da posible ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduraren falta gerora zuzentzea, hain zuzen ere, arrazoi horregatik deusez deklaratu den hirigintza-plangintzako tresna batean. Beraz, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 47.2 artikuluan araututako deuseztasun-kasu bat da.

Kontseiluak, halaber, ofizioz berrikustearen mugak aztertu ditu, merkataritza-sozietateak alegatu baitu administrazio onaren printzipioa urratu dela, toki-entitateak «bere egin dituelako» sozietateak bere alegazioetan aipatu dituen deuseztatze-arrazoiak, eta erabaki judiziala «eragozten» ari dela.

Doktrinaren arabera, administrazioa ona izan dadin Administrazioak behar bezala balioetsi behar ditu baliabideak, gertakariak eta inguruabarrak, ahalik eta erabakirik onena hartzeko, modu arrazoituan, inpartzialean eta zentzuzko epe batean. Kasu honetan, Kontseiluak iritzi dio udalak ez zuela urratu interesdunak administrazio ona izateko duen eskubidea, Udalak azkar erantzun zuelako: deusezatasuna deklaratzeko prozedura abiarazi zuen, eta merkataritza-sozietatearen helburua bete zuen.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Kontseiluak iritzi dio bidezkoa dela ofizioz berrikustea, zuzenbidean erabat deuseza baita aurkaratutako hiri-jarduketarako plan berezia.